

Lizarragako Mikrosarea

TESTUINGURUA


Zerk eta zergatik sustatu da energia lanketa?

Euskal Herriko energia esperientziarik interesgarrienetakoa dugu Lizarragakoa. Izan ere, mikrosare bat eraiki dute herrian, bizilagunek dituzten argi-indar beharrei erantzuteko. Batetik, urarekin sortzen duten energia hornitzen dute sarea, eta, bestetik, eguzkiarekin sortzen dutenarekin. Sustatzaileek uharte batekin alderatzen dute proiektua, bere energia sortu, metatu eta kontsumitzen duen irla batekin, hain zuzen ere.


Proiektuaren abiapuntua Sakana eskualdeak diseinatu zuen Plan Estrategiakoan dago. Izan ere, tenore hartan energia diagnostiko bat egin zuten, herri bakoitzean kontsumitzen den KW kopurua aztertu amoz. Azterketaren emaitzetan ikusi zuten Lizarragak diru asko bideratzen zuela herriko argiteri publikora. Herri txikia izanik, zama ekonomiko handia zen herritarrentzako, hori horrela, autokontsumoaren aldeko hautua egin zuten.

Prozesua urte batzuk lehenago hasi zela esan daiteke. Alta, urte batzuk lehenago, Lizarragako Kontzejua Sakanako Ur Mankomunitatean sartu zenean, herriko goiko aldean zegoen ur-tanga erabili gabe geratu zen, bere hoditeria eta guzti. Hori horrela, azpiegiturak berriro erabiltzearen aldeko apustua egin zuten argi indarra sortzeko: batetik, kilometro eskasera ur-tanga berri bat eraiki zuten goiko ura jasotzeko, eta, bestetik, turbina bat jarri zuten ura bertatik pasatzerakoan energia sortzeko.

Kokapena



Lizarraga (Ergoiena), Sakana, Nafarroa
Biztanle kopurua: 176
Sustatzailea: Lizarraga Kontzejua, Sakanako Garapen Agentzia, Sakanako Mankomunitatea eta Cener
Harremanetarako: Utzubar industrialdea, 8. Partzela, 31839, Arbizu, 647864239
info@sakanagaratzen.com
Energia-iturria: Hidraulikoa eta fotovoltaikoa



Egunean zehar, energia goiko ur-tangan biltzen da, energia potentzial moduan. Sutatzaileek azaldu legez, herriko energia gehiena argiteria publikoan kontsumitzen da. Horregatik, gauetan, argi publikoa pizten denean, ura goiko tangatik behekora askatzen dute eta turbinatik pasatzen denean energia sortzen da. Argi indar horrek mikrosarea eta argiteria publikoa elikatzen ditu. Egunez energia soberan badago, ura beheko biltegitik goikora ponpatzen dute.

Kasu puntualetan, momentuko energia sorkuntza nahikoa ez denean, mikrosareak sare elektrikoko energia kontsumitzen du.

Halaber, ur biltegi berriaren ondoan eguzki plaka fotovoltaikoak ipini dituzte (20KW). Horrenbestez, egunez eguzkiaren energiarekin eta gauetz urarenarekin elikatzen dute Lizarragako mikrosarea, %100 energia berriztagarriekin, hain zuzen ere.

Dena den, mikrosareak ez du soilik argiteria publikoa hornitzen, frontoiko argia, kontzejuko eraikinak, herriko taberna, medikuaren kontsulta eta auto elektrikoak kargatzeko puntua ere elikatzen ditu. Sistemari esker urtean 10.000 euro aurreztera iritsi dira; eta 10-12 urtera egongo litzateke amortizatua.

PROIEKTUAREN HELBURUAK

- Herriko energia iturriak aprobeztatzen ditu proiektuak, bai energia sortzeko baita energia metatzeko ere.

- Energia burujabetzan urratsak egitea du xede (gaur egun, kontsumoaren %70 sortzen da mikrosarean).
- Herriko kontsumo elektrikoak elikatzen ditu.

INPLEMENTAZIOA

Faseak eta ekintza planak

- Energia diagnostikoa egitea Sakana mailan.
- Herriko puntu bakoitzeko kontsumoaren erregistroa egitea.
- Murrizketa erak baloratu puntu bakoitzeko.
- Mikrosarearen proiektua gauzatzeko lekuak baloratzea.
- Garrantzitsua da herriaren kokapena eta terreneen puntuak ongi ezagutzea, herrian bertan egin ahal izateko. Aldi berean, dauden azpiegitura zaharren egoera baloratu (ur-tangak).
- Ur-tanga berria egitea.
- Kontsumo puntuak Mikrosarearekin konektatzea.
- Kontsumoa murrizteko neurriak hartzea (LED bonbillak argiteria publikoan)
- Mikrosarea abian jartzea.
- Emaita: Mikrosarea definitu eta sortu du Lizarragako kontzejuak.





ALDERDI EKONOMIKOA

- **Aurrekontua:** 200.000 euro
- **Finantziazioa:** Nafarroako Gobernua %45
- **Bestelako baliabideak:** Sakanako Garapen Agentziaren aholkularitza.

PRAKTIKAREN INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK

- **Indarguneak:** Oso apustu indartsua eta garbia zuen herriak. Obraren zati batzuk auzolanean egin dira. Nafarroako Gobernua-ren diru-laguntzak inbertsioa murriztu eta proiektua bideragarriagoa egin du.
- **Ahulguneak:** Iberdrolarekin erregistroak lotzea neketsua izan zen, batez ere, bidean sortzen ziren traba ugariengatik. Horrelako proiektuen erregistroa egiteko hiru edo lau hilabete zain egon behar izan dute.